



Irakurketa Erraza

# **Irisgarritasun kognitiboa Nafarroako Turismoan**

Gozatu mugarik gabeko erresuma batez



Orria: 19tik 1

## Aurkibidea

1. ¿Qué es este documento?.....	3
2. Un consejos para hacer turismo en Navarra.....	5
3. La accesibilidad cognitiva en el turismo de algunas ciudades de Navarra .....	6
4. La accesibilidad cognitiva en valles, parques y entornos naturales de Navarra .....	9
5. La accesibilidad cognitiva en museos y espacios culturales de Navarra .....	12
6. Las accesibilidad cognitiva en los alojamientos de Navarra .....	17

## 1. Zer da dokumentu hau?

Gida bat da,  
Nafarroako toki turistiko batzuetako  
irisgarritasun kognitiboa azaltzen duena.

Nafarroako Gobernuko  
Marketin eta Nazioartekotze Turistikoaren Zerbitzuak  
eta Iddeas Fundazioak  
egin dute gida.

Gidan dagoen informazio guztia  
Nafarroako toki turistikoen webguneetatik  
atera dugu.

Horrek esan nahi du agian  
webguneetako informazioa aldatu dela  
eta eguneratuago egon daitekeela.

Horregatik, oso garrantzitsua da  
sarrera erresebatu aurretik  
toki turistiko horietako arduradunekin  
hitz egitea.

Dokumentu hau Irakurketa Errazean dago.  
Ulertzen errazagoak diren dokumentuak  
sortzeko modu bat da Irakurketa Erraza.

Irakurketa Erraza ongi datorkie  
hala ulermen-zailtasunak dituzten pertsoneri  
nola adimen- edo garapen- desgaitasuna dutenei.



Irudi urdin hau  
Irakurketa Errazaren europar logoa da.  
Logo hau dokumentu edo liburu batean  
ikusten duzunean,  
esan nahi du ulerterrazago dela.

## **2. Aholku bat**

### **Nafarroan turismoa egiteko**

Nafarroan sarrera erreserbatu behar da hainbat toki turistiko bisitatzeko, hala nola museo eta parke natural batzuk.

Oso garrantzitsua da sarrera erreserbatu aurretik toki turistiko horietako arduradunekin hitz egin dezazula.

Hala, zalantzak argitu eta bisitatu nahi duzun tokia irisgarria den jakin dezakezu.

Izan ere, baliteke joan nahi duzun tokiaren irisgarritasuna aldatu izana eta gidaliburu honetan edo webgunean dagoen irisgarritasunari buruzko informazioa eguneratuta ez egotea.

### 3. Irisgarritasun kognitiboa Nafarroako hiri batzuetako turismoan

Nafarroan hiru hiritan egin daiteke turismoa irisgarritasun kognitiboarekin.



Iruñean barna **Donejakue bidea** igarotzen da, Frantziatik Galiziako Santiagoko katedraleraino doan bidea, alegia.

Milaka pertsona ibiltzen dira bide horretan oinez edo bizikletaz urtero.

Iruñean, Donejakue bidea igarotzen den zenbait gunetan dago Irakurketa Errazera egokitutako informazioa.

Irakurketa Errazean informazioa dagoen tokietan NaviLens kode bat dago.

#### **NaviLens kodea**

QR kode bat bezalakoa da, eta informazio irisgarria du.

NaviLens kodeei buruz gehiago jakiteko, sakatu esteka hau:

<https://www.youtube.com/watch?v=NUWO3T1CfXw>



Hau da NaviLens kode bat.

Hona hemen zer tokitan dauden  
Irakurketa Errazera egokitutako informazioa  
duten Navilens kodeak:




**Udaletxe plaza.**

Comentado [J1]: Nota de T: en euskera no hace falta explicar el concepto "consistorial"



**Turismo-bulegoa**, Udaletxe plazatik gertu,  
San Saturnino kaleko 2an.  
Telefono-zenbakia 948 42 07 00 da, eta  
helbide elektronikoa,  
[oficinaturismo@pamplona.es](mailto:oficinaturismo@pamplona.es)



**Frantziako portalea**, Caparrosoren  
hondartzan, Iruñean



**Katedrala**, Dormitaleria kaleko 1ean, Iruñean  
Telefono-zenbakia 948 22 56 79 da, eta  
helbide elektronikoa,  
[museo@catedraldepamplona.com](mailto:museo@catedraldepamplona.com)



**Zaldi Zuriaren Txokoa**, Redin pasealekuan,  
Iruñean.



**Turismo-bulegoa**, Foruen plazako 5ean,  
Tuteran.

Telefono-zenbakia 948 84 80 58 da, eta  
posta elektronikoa, [turismo@aytotudela.es](mailto:turismo@aytotudela.es)

- Tuterako turismo-bulegoan artatuko zaituzten langileek desgaitasuna duten pertsoneri laguntzeko prestakuntza jaso dute.
- Turismo-bulegoaren fatxadan plaka bat dago Irakurketa Errazean, han egin daitezkeen gauzak azaltzen dituenena. **Fatxada** eraikin baten kanpoaldea da.






**Erriberriko Errege Jauregia** Teobaldos plazako 4an dago.

Telefono-zenbakia 691 02 16 67 da, eta helbide elektronikoa, [info@palaciorealolite.com](mailto:info@palaciorealolite.com)

**Comentado [JO2]:** Nota de T: desconocemos si la calle tiene denominación en euskera en Olite; si la hubiera habría que ponerla

- Erriberriko Errege Jauregian gida turistiko aritzen direnek adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri laguntzeko prestakuntza jaso dute.
- Erriberriko Errege Jauregian Irakurketa Errazeko gidak daude ulermen-zailtasunak dituztenek jauregiaren historia uler dezaten bertan paseatzen duten bitartean.
- Erriberriko eta inguruko upategi batzuetan bisita gidatuak egiten dituzte desgaitasuna duten pertsona-taldeentzat Taldeko bisita gidatu horiek egin baino lehen, garrantzitsua da joan nahi duzun upategiarekin hitz egitea lehenbizi.




#### 4. Irisgarritasun kognitiboa Nafarroako ibar, parke eta natura-inguruneetan

Nafarroako toki batzuetan bisita gidatuak egiten dituztenek eskarmentu handia dute



bisitak irisgarritasuna behar duten  
pertsonek taldeetara egokitzen.  
Pertsona horietako askok  
desgaitasuna duten pertsonak  
artatzeko prestakuntza jaso dute.

Toki hauetan jakingo dute  
zu nola artatu  
desgaitasuna baduzu:



#### **Urbasa-Andia parkea,**

Lizarratik gertu.

Comentado [JO3]: Errata en original: Andía > Andia



#### **Otsagabiako Naturaren Interpretazio Zentroa.**

Labaria kaleko 21ean dago, Otsagabian.

Telefono-zenbakia 948 89 06 41 da, eta helbide  
elektronikoa, [oit.ochagavia@navarra.es](mailto:oit.ochagavia@navarra.es)



#### **Erronkariko Naturaren Interpretazio Zentroa.**

Julian Gayarre kaleko zenbaki gabe dago,  
Erronkarin.

Telefono-zenbakia 948 47 52 56 da, eta helbide  
elektronikoa, [info@cinroncal.es](mailto:info@cinroncal.es)



#### **Irunberriko Arroilen Naturaren Interpretazio Zentroa.**

Plaza Nagusiko zenbaki gabe dago, Irunberrin.

Telefono-zenbakia 948 88 00 10 da, eta helbide

elektronikoa, [ayuntamiento@lumbier.es](mailto:ayuntamiento@lumbier.es)



**Bertziko Jaurerria, Oieregin.**

Telefono-zenbakia 948 592 421 da, eta posta elektronikoa, [cinberti@navarra.es](mailto:cinberti@navarra.es)

Comentado [JO4]: Errata en original: Oyeregui > Oieregi

**Zugarramurdiko leizea.**



Telefono-zenbakia 948 59 93 05 da, eta posta elektronikoa, [info@zugarramurdi.es](mailto:info@zugarramurdi.es)

Sarrera aldeaz aurretik erreserbatu behar duzu webgune honetan:

[Zugarramurdiko leizeak](#)

**Ikaburuko leizea, Urdazubin.**



Telefono-zenbakia 948 59 92 41 da, eta posta elektronikoa, [info@cuevasurdax.com](mailto:info@cuevasurdax.com)

Sarrera aldeaz aurretik erreserbatu behar duzu webgune honetan:

[Ikaburuko leizeak](#)

**Mendukiloko leizea, Aralar mendian.**



Telefono-zenbakia 948 39 60 95 da, eta posta elektronikoa, [mendukilo@mendukilo.com](mailto:mendukilo@mendukilo.com)

Sarrera aldeaz aurretik erreserbatu behar duzu webgune honetan:

[Mendukiloko leizeak](#)

**Salobreko urtegioko hegaztien behatokia,**



El Bordón deiturikoa

Vianan dago, Logroñoeko errepidean.

Telefono-zenbakia 696 83 08 98 da.

Toki honetan informazioa

**Irakurketa Errazera** egokituko dugu.



**Pitillasko aintzirako hegaztien behatokia,**  
Pitillasen.

Telefono-zenbakia 619 46 34 50 da

Leku honetan informazioa

**Irakurketa Errazera** egokituko dugu.

## 5. Irisgarritasun kognitiboa Nafarroako museoetan eta kulturaguneetan

### Nafarroako Museoa



#### Nafarroako Museoa

San Domingo kaleko 47an dago, Iruñean.

Telefono-zenbakia 848 42 64 92 da, eta posta elektronikoa, [museo@navarra.es](mailto:museo@navarra.es).

Nafarroako Museoaren webgunean 3 liburuxka daude **Irakurketa Errazean**, eta museoan dagoenaren zati bat azaltzen dute.

Egin klik esteketan liburuxkak ikusteko:

- 6 maisu-lan Nafarroako Museoan:  
<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/8AFF6BC4-5295-403F-BAFA-195C7E776DFC/406734/6 obras maestras MuseoNav acc.pdf>

- Arte guztia garaikidea da:  
<https://www.culturainavarra.es/imagenes/documentos/guia-de-lectura-facil-todo-el-arte-es-contemporaneo-246-es.pdf?t=20211225015658>
- Historiaurreko aretoan ikusgai dauden piezak:  
[http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DA9A6272-E45E-48EE-B637-059D79E151E0/473875/Prehistoria\\_MN.pdf](http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/DA9A6272-E45E-48EE-B637-059D79E151E0/473875/Prehistoria_MN.pdf)

## Gustavo de Maeztu Museoa



### Gustavo de Maeztu Museoa

San Nikolas kaleko 1ean dago, Lizarran  
Telefono-zenbakia 948 54 60 37 da, eta posta  
elektronikoa, [museogmaeztu@estella-lizarra.com](mailto:museogmaeztu@estella-lizarra.com)

Museo honek  
pertsona guztiek gozatzeko toki inklusibo bat  
izan nahi du, hau da,  
inor kanpoan utziko ez duen toki bat.

Horregatik, talde bakoitzaren beharretara  
egokitutako bisita gidatuak  
antolatzen ditu museoak.

Museoaren webguneak dio  
adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonentzako  
bisita gidatuak ere antolatzen dituztela.

## Tuterako Museoa



Tuterako Museoa Roso kaleko 1ean dago,

Tuteran.

Telefono-zenbakia 948 40 21 61 da, eta

posta elektronikoa,

[info@museodetudela.com](mailto:info@museodetudela.com)

Tuterako Museoaren webgunean

**bisita gidatu birtual** bat dago.

Horrek esan nahi du

ordenagailuan, tabletan edo telefono mugikorrean

bisita dezakezula museoa,

edozein tokitatik,

hala nola zure etxetik.



Bisita birtualean zehar,

pantailaren ezker aldean,

Irakurketa Errazaren europar logoa ikusiko duzu.

Egun klik logoan,

eta museoko areto bakoitzeko informazioa

Irakurketa Errazean irakurtzeko.

Areto batera sartzen zaren bakoitzean,

logoan berriro sakatu behar duzu.

Museora bisita gidatua egiteko,

egin klik esteka honetan: <https://museodetudela.com/virtual/>

Museo fisikoan ere

aurki ditzakezu Irakurketa Errazera

egokitutako paperezko gidak.

## Las Eretas Museoa eta Aztarnategia



**Las Eretas Museoa** Seretas kaleko 2an dago, Berbintzanan.

Telefono-zenbakiak 630 225 801 eta 948 72 21 76 dira larunbat, igande eta jaiegunetan, eta posta elektronikoa, [info@eretas.es](mailto:info@eretas.es).

### **Aztarnategi arkeologiko** batean

mineral, arroka

edo antzinako kulturen aztarna asko daude, adibidez, bizi ziren etheen aurriak.

Las Eretasen hainbat lan egin dira

museoa eta aztarnategia

pertsona guztientzat irisgarri izan daitezen.

Bi liburuxka daude Irakurketa Errazean,

museoari buruzko informazioarekin:

- Informazio orokorra duen liburuxka, gaztelaniaz:  
[https://www.eretas.es/eretas/contenido/archivos/folleto\\_LF\\_castellano.pdf](https://www.eretas.es/eretas/contenido/archivos/folleto_LF_castellano.pdf)
- Informazio orokorra duen liburuxka, euskaraz:  
[https://www.eretas.es/eretas/contenido/archivos/Eretak\\_FOLLETO\\_euskera\\_ok.pdf](https://www.eretas.es/eretas/contenido/archivos/Eretak_FOLLETO_euskera_ok.pdf)

Gainera, museoko panel bakoitzean

QR kode bat dago;

telefonoaren kamerarekin eskaneatuz gero,

paneleko informazioa deskargatuko duzu

Irakurketa Errazera egokituta.

Informazioa euskaraz eta gaztelaniaz dago.



Hau da QR kode bat.

## Erromesen Harrera eta Donejakue Bidearen

### Interpretazio Zentroa

Comentado [J5]: La foto no parece coincidir con el sitio



### Erromesen Harrera eta Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa (Ultreia)

Kale Nagusiko 20an dago,  
Iruñean.

Orria: 19tik 16



Telefono-zenbakia 948 42 07 05 da, eta posta elektronikoa, [ultreia@pamplona.es](mailto:ultreia@pamplona.es)

Ultreia zentroko atean  
NaviLens kode bat dago;  
telefonoarekin eskaneatuz gero,  
informazioa Irakurketa Errazean irakur dezakezu.

## 6. Irisgarritasun kognitiboa Nafarroako ostatuetan

Gehienetan, Nafarroako ostatu turistikoek webguneek ez dute adierazten irisgarritasun kognitiborik duten ala ez.

Horregatik, erreserba egin aurretik, garrantzitsua da ostatuko langileekin hitz egitea. Zalantzarik eginez gero, galdetu lasai,

Orria: 19tik 17

eta ziurtatu ostatua irisgarria dela,  
egonaldi eroso, seguru eta autonomoa  
izan dezazun.

Gure Sustraiak aterpetxearen  
webguneak dio  
eraikineko seinaleak  
irisgarritasun kognitibora egokituta daudela.



Gure Sustraiak aterpetxea

Santo Tomás kalean dago,

Ollon.

Telefono-zenbakia 948 328164 da, eta

posta elektronikoa,

[educacion@granjaescuelaguresustraiak.](mailto:educacion@granjaescuelaguresustraiak.com)

[com](http://www.guresustraiak.com)

Comentado [JO6]: idem callejero



ANFASeko Irisgarritasun Kognitiboko Zerbitzuak egokitu eta baliozkotu du testua.



Irakurketa Errazaren europar logoa: "© European Easy-to-Read Logo: Inclusion Europe. Argibide gehiago: <https://www.inclusion-europe.eu/easy-to-read/>